

Iktomiren irakasgaia, komikia.

Gidoia: David Chauvel. Irudia eta kolorea: Fred Simon

Itzulpena: Bego Montorio.

Arturo. 1 - Myrddin eroa, komikia.

Gidoia: David Chauvel. Marrazkiak: Jérôme Lereculey. Kolorea: Jean-Luc Simon

Itzulpena: Pedro Diez de Ulzurrun.

Urte batzuk badaramatza Saure argialetxe arabarrak euskaraz kalitate oso handiko komiki liburuak plazaratzen, baita gaztelaniaz ere bakarren batzuk, Jean François Saure komikizale frantses arabartuaren ahaleginari esker. Urte hauetako ibilbidean, hamazortzi izenburu inguru argitaratu ditu dagoeneko, haietako gehienak itzulpenak izanik, puntako itzultzaileek egindakoak. Gogoratzekoak dira, adibidez, *Leonardo, jakintsu handia*; Sherlock Holmeen bildumatxoa: *Sherlock Holmes eta kirol arriskutsuetako elkartea*; *Kameliako gizonak*; *Sherlock Holmes ez da ezeren beldur*; edo XVI-XVII. mendeetako ezpatarien aroan girotutako Kapak eta Letaginak sorta: *Janitzariaren sekretua*; *Bandera beltza!* Orain, beste bi sortari ekin dio: *Popotka, siux txikia* du izena bata, eta besteak *Arturo, epopeia zelta bat*.

Lehendabizikoak Ipar Ameriketako siux herriko ume baten inguruko istoriotxoak izango ditu kontagai, 8-12 urte bitarteko umeentzat gustagarri izango diren marrazki eta elkarrizkak dauzkan istorio xumeetan; *Iktomiren irakasgaia* izenburua daukan lehen emanaldi honetan, oraindik gizon zuriaren etorreraren arrastorik ez duen garai edo toki idiliko batean jartzen gaituzte egileek, kolore biziz eta marrazki ederrez, ume indiarren bihurrikerietan harturik abiapuntu. Zinema iparramerikarrak indiarrei buruz eman digun irudi liskartsu eta baita odoltsuari kontra jartzen zaio komiki hau, tribu indiar honen bizitza baketsuan garatzen baita komikiaren kontakizun simple bezain atsegin hau; modu egokia da hainbat urtetako ekin etengabea zinemagintza horrek gu guztion baitan utzi dizkigun topiko penagarrien ifrentzua ikusteko eta euskal umeei eta hain ume ez garenok ere erakusteko.

Bestetik, Arturoren sortari dagokionez, lehen zenbakian Merlin azti ezagunaren jaiotza eta gaztaroko abenturen berri kontatzen zaigu; izan ere, Myrddin Merlinen jatorrizko izen zeltikoa omen zen, gidoilariak hitzaurrean dioten bezala. Aurrean aipatu dugun komiki sortan ez bezala, Erdi Aroan girotuta dagoen beste honetan liskarrak, odola eta heriotza barra-barra agertzen dira, Britainia konkistatu nahi dutenen eta defenditzen dutenen arteko gerretan, bai eta Britainiarren artean botereagatik pizten diren guduetan ere. Arturo erregearen zikloa izango du, beraz, ardatz komiki sorta honek; 13-14 urtetik aurrerako jendearentzat izan daiteke gustagarriagoa, testua ere dexente duelako, eta ez beti erabat erraza.

Saure argialetxe honen lana aipagarria da benetan, batez ere liburugintzaren mundua, oro har, eta, bereziki, komikiak plazaratzen dituzten argialetxeen liburugintza, gainbehera daudela dirudien aro honetan; behialako argitaragintzaren arora itzularazten gaitu, nolabait, liburuak plazaratzea maitasun-ekintza balitz bezala saiatzen ziren argitaldarien emaitza ekonomikoen kontuaren gaitetik, batez ere ekoizpenaren kalitateari begiratzen zioten garaira, alegia.

Eta hor ez da amaitzen argialetxe honek egiten duen lana, orain arte bi lehiaketa ere antolatu baititu, nazioarte mailakoak, hemengo eta kanpoko gidoilari eta marrazkilariei zuzenduak; bata, *Bidaia Espirituala* izenburuaz, gatazka, indarkeria eta justizia ardatz harturik, Fernando Buesa Blanco Fundazioaren laguntzaz; eta bestea *Inka txikia* izenburua duena, kulturartekotasuna, emigrazioa eta haren arazoak kontagai bihurtu nahi dituen. Bide batez esanda, bi lehiaketa hauetara aurkezteko epea oraindik zabalik dago, eta haiei buruzko

informazio gehiago nahi izanez gero, argitaletxeak badu webgune bat www.ed-saure.com helbidean.

Koldo Biguri